

Aurkezpen gisa

Aspaldikoa da, agian, gure herrian aldizkari bat argitaratzeko azmoa.

Beste zenbait herritan ere, auzokotatik hasita, sortuz joan dira herri aldizkariak nahiz urtekariak. Hor ditugu honen lekuko Erreterian, Pasaian, Oiartzunen... atera izan direnak.

Lagungarri dateke aldizkari bat herri batek bere burua ezagut dezan, iraganekoa zein oraingoa, bere buruaren jabe izan dadin eta etorkizunari ere oihartuki hel diezaien. Hau litzateke ASKE aldizkariaren jomuga.

Eta herri honen oihartzun apal bat izan nahi duenez gero, behar beharrezkoa du irakurleon laguntza: zuen harreara, kritika eta partaidetza, iraupenik izango badu eta herritarra izango bada.

Aldizkari hau, aurrerantzean ohartuko zaretenez, herriaren kondaira, hizkuntza, literatura, eguneko arazoak eta orotariko gorabeherak eskaintzen entseiatuko da.

Interesgarria gerta dakizuelakoan plazaratzen da, beraz, lehenengo ale hau. Baina, hori geroak esan beharko du. Geroak eta ale hauek eskutan hartzen duzun horrek.